


1. MUGIKORTASUNA HOBETUZ HOBETO BIZIKO GARA

Euskal Herrian egun nagusi den garraio eredu, errepidearen mende, erabat, eta lurralde antolamendu penagarria eta produkzio eta salmenta eredu gero eta sakabanatuagoa, denak batera, gero eta joan-etorri gehiago eta gero eta luzeagoak eginarazten ari zaizkigu langileoi. Eta horrek eragin handia dauka gure lan eta gizarte baldintzetan, jakina. Langileen %17,21ek ordu bete baino gehiago ematen du egunero lanerako joan-etorrietan.

2. LANTOKIAN HILTZEN GARA, ETA ERREPIDEETAN HILTZEN GARA

Lan kontuengatik egiten diren joan-etorrietako segurtasun falta gero eta handiagoa da. Txosten batzuen arabera, segurtasuna 20 bider gutxiago da garraibide publikoetan barik geure automobiletan ibiltzen garenean.


IN ITINERE ISTRIPUAK NAFARROAN ETA EAE-n



3. JOAN-ETORRIK GEHIENAK LAN KONTUAK TARTEKO EGITEN DIRA

Motordun mugikortasun gehiena lan kontuengatik da (%61). Ondoren, ikasketak (%23). Lanera joateko garraibide motorizaturik behar dutenen %83k beren autoa hartzera jotzen dute.

JOAN-ETORRIEN ARRAZOIAK



4. GURE BEHARRETARAKO EGOKIA DEN GARRAIO PUBLIKOA BEHAR DUGU

Joan-etorrirek gehienak eskualde barruan egiten dira (%88), eskualdeen artean baino askoz ere gehiago (%11) eta kanporako bidaiak baino are gehiago (%1). Gauzak horrela, eta datozen urteotan garraio publikoan egingo diren inbertsioen oso portzentaje altua hiriburuetan soilik (joan-etorrien %0,7) geratuko den tren lasterreko trenbidera bideratuko da.

5. HAUTS DEZAGUN GURPIL ZORO HORI, GARRAIO PUBLIKO ERAGINKOR, MERKE, OREKATU ETA OSASUNGARRIAN GEHIAGO INBERTITZEKO

Ekoizpen jarduerak eta langileen bizitokiak gero eta sakabanatuago daude, lanerako mugikortasun motorizatuak eta auto kopuruak gora egiten dute. Enpresa-busak desagertu dira, eta lantokietan aparkalekuek autoa erabiltzea bultzatzen dute. Aldi berean administrazioek bide-azpiegiturak eraiki eta eraiki egiten dituzte. Azkenean, honek guztiak garraio publiko eskasa eragiten du.

6. EGUNGO MUGIKORTASUN EREDUA KALTEGARRIA DA LANGILEONTZAT

Lanerako joan-etorrietako ezbeharrak, "in itinere" direlakoak, ugaltzen dira, baita "langintzan" deritzenak ere. Euskal Herrian garraioaren kanpo-kosteak 2.000 milioi eurotik gorakoak dira, %80 istripu, airearen kutsadura eta auto-ilaren erruz. Garraio pribatuan oinarritzen den mugikortasun ereduak aberatsenei on egiten die, gastu ugariak ordaintzeko nahikoa diru ez duen langileria, gidabaimenik ez duen edo, besterik gabe, garraio publikoan soilik ibiltzea erabaki duena baztertu eta kaltetuz.

7. ESKUINAREN POLITIKEK EGOERA OKERTU BESTERIK EZ DUTE EGITEN

Administrazioek, azpiegitura berriak etengabe eraikitzean oinarritutako eskaintza-politiken porrotaren ostean, energiaren krisia gainean daukagunean, eta ingurumenaren gaineko gero eta kezka handiagoa dagoenean, beste mugikortasun eredu baten alde egin behar dute. Eskariaren kudeaketan oinarrituz egingo da hobera, ez eskaintza etengabe handituz.

8. MUGIKORTASUN PLANAK ENPRESETAN, AUKERA BAT

PSOEK 200 langile baino gehiago dituzten enpresa eta lantoki guztietarako agindu zituen garraio planak baina ez du hitza bete. Enpresarako Garraio Plan batean halakoak sar litezke: - Enpresaren autobusak, zein joan-etorriko autobusak garraio desberdinen bilguneetara eta metro edo tren geltokietara. - Auto konpartituan, bizikletaz eta oinez joatea bultzatu, baita

etxibizitza lantokitik hurbil alokatu edo erosteko laguntzak ere. - Aparkaleku-politika berria, auto pribatua erabiltzea errazten ez duena.

- Garraio kolektiboko sistema publikoak egokitu eta garraioaren koordinatzailearen figura ezarri. Sartzeko eta irteteko ordutegi malgutasuna, ilarak saihesteko.

9. BIDE HONETATIK, KUTSADURA AREAGOTU

Europar Batasunean urtero-urtero 400.000 pertsona baino gehiago hiltzen dira kutsadura atmosferikoaren ondorioz, arnasketa arazoak, arazo kardio-baskularrak, minbizia, eta halakoak eraginda. Haurrak eta zaharrak dira kaltetuenak.

10. HORREK GUZTIAK ZERIKUSI HANDIA DAUKA KLIMA ALDAKETAREKIN

Autoa lanerako garraibide masibo modura erabiltzea eragozpen handia da baldin eta Euskal Herriak Kyotoko Protokoloa bete gura badu. CO2 emisioak Hegoaldean %50 hazi dira 1990etik, Estatu Espainolak 2010-2012 artean gehienez %15 gehitzea duenean. Garraioaren ondoriozko emisioak %100etik gora hazi dira 1990etik eta hori larregi da, edonondik begiratuta ere.

11. PASEATU, LABORATU... BIZITZEKO TOKIRIK GABE GERATZEN ARI GARA

Produktzio eremu, saltoki handi, aisialdi gune handi, kiroldegi eta abarrak eraiki eta herri eta hirien kanpoalderantz eraman eta zabaltzen direnean, lurzoru piloa kontsumitzen da. Enpresa esparruak zirkulatu eta aparkatzeko gainazal handiak hartuz diseinatu dira. Lanera autoz joaten den pertsonak, bidean zehar eta aparkatzen, autobusez joanda baino 25 bider eremu gehiago betetzen du.

12. KLASE SINDIKATU BATEK ZERESAN HANDIA DAUKA GAI HONETAN

Ezin dugu utzi lan eta gizarte baldintzei, gure bizitza kalitateari hainbeste eragiten dien gaia sindikatuen esku hartzetik kanpo gera dadin. Ekin diezaiokegu, ekin behar diogu enpresetatik, gobernuko erabaki organoetatik, tokian tokiko erakundeetatik... langile eta herritar modura ditugun behar eta interesak aseko dituzten politikak ezar daitezten. Horregatik, negoziazio, parte hartze eta erabaki esparru desberdinetan lantokietarako irisgarritasuna hobetzeko bidea eraginkorragoa izan dadin aldarrikatu behar dugu, gizartearen eta ekonomiaren ikuspegietatik modurik bidezko, orekatuenean eta ingurumenarekin errespetuzkoenean gauza dadin.

